Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

78. alea / 2021eko abendua

## Berritasunak



**NOPLOIk *Industria -eraikin eta -instalazioetako amianto-ikuskatzaileak akreditatzeko prestakuntza eman du*.** Azaroaren 22tik 26ra bitartean, 24 pertsonak parte hartu zuten amiantoa aurkitu eta diagnostikatzeko UNE 171370-2 araua (2021eko urtarrilean onartua) aplikatzeko ikastaro batean. NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuak antolatu zuen ikastaroa, *Industria-eraikin eta -instalazioetako amianto-ikuskatzaileak* akreditatzeko. Bertaratutakoen artean, Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutako langileak zeuden, bai eta gaiarekin zerikusia duten beste entitate eta elkarte batzuetako ordezkariak ere. Ikastaroa *ANEDES*ek (amiantoa kentzeko enpresen elkartea) eman zuen, eta NOPLOIk Landabenen dituen instalazioetan egin zen presentzialki. Gainera, gaian adituak diren pertsonen parte-hartze birtuala izan zuen.

**Informazio gehiago**

---



**Basogintzan istripuen tasak nabarmen egin du behera.** Basogintzako istripuen tasak behera egin du: 2017an 622 lan-istripu izan ziren, eta 2020an, aldiz, 109 (1.000 langileko), *Lan Osasuneko 2017-2020 Planaren Balantzeko* datuen arabera. Tasa hori historikoki oso handia izan da, eta NOPLOIk, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, Laneko Ikuskatzailetzak eta sektoreko enpresek elkarrekin koordinatutako jarduerari esker murriztu da. Emaitza on hauek ikusita, aztertzekoa da jarduera koordinatu hori arrisku handiko beste jarduera batzuetan gauzatzeko aukera.

## Nabarmendua



**Emakumeen kontrako indarkeria lan-ingurunean ere izaten da.** **Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna** duela gutxi ospatu da, askotan isildutako errealitate hori plazaratzeko. Berdintasun Ministerioak dituen datuen arabera, 16 urtetik gorako emakumeen % 40k (zortzi milioi) sexu-jazarpenen bat jasaten dute gure herrialdean, eta **horien % 20 lan-ingurunean gertatzen dira**. Erakunde horrek, duela gutxi, eskuliburu bat argitaratu du enpresei **jazarpenen aurkako protokoloa** ezartzen laguntzeko.

- **Lan-eremuan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko protokoloa**

---

**Gure konpromisoa eta zurea: lantokia ingurune osasungarria izatea.** *Lan-osasunean funtsezko pieza zara* kanpainak, urte amaiera honetan, 2022. urteari eskatzen dio enpresa eta lan-ingurune guztiak gune osasungarri bihur daitezela. Nahi hori betetzeko, beharrezkoak dira lan-esparruko eragile guztien konpromiso indibiduala eta kolektiboa.




---




***Lan Istripuen Estatistikaren* urtarrila-iraila aurrerapena argitaratu da.** Estatuan, urtarriletik irailera, baja eragin zuten lan-istripuen kopurua 394.268 izan zen soldatapekoen artean, hau da, % 20,5eko igoera aurreko urteko aldi beraren aldean. 342.010 istripu lanaldian gertatu ziren, eta 52.258 *in itinere*. Aurreko urtearen aldean, aldakuntza % 18,7koa izan zen lanaldiko istripuetan, eta % 33,7koa *in itinere* istripuetan

- **Informazio gehiago**

## Agenda

Lan jardunaldia – Presentziala eta online
**PANDEMIA, OSASUN EMOZIONALA, LANEKO ARRISKU PSIKOSOZIALAK ETA PERTSONEN ESKUBIDEAK**
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA – Bilbo – Abenduaren 16a

- Egitaraua
- Izen-emateak

## Berriak

- Cuatro condenados por la muerte de un obrero que cayó al vacío en un edificio en Erripagaña
  Diario de Noticias
- El dato del día: cánceres profesionales detectados en Francia y en España.
  Prevención Integral.
- El Tribunal Supremo confirma la mejora de la prestación a la familia de un fallecido por amianto en Navarra. Diario de Noticias
- Lanaren gaitzak jota. Berria
- UGT Navarra afirma que el acoso sexual o por razón de sexo en el ámbito laboral está "infradeclarado". Diario de Noticias
- Reclaman prevención en riesgos psicosociales para las cuidadoras de los centros de menores y discapacidad. Diario de Navarra
- El dato del día: los accidentes de trabajo son el daño a la salud en el trabajo que provoca la mayor pérdida de años de vida ajustados por discapacidad. Prevención Integral

## Argitalpen digitalak




**Decálogo para la prevención de riesgos psicosociales con perspectiva de género en las empresas**
OSALAN




**Buenas prácticas preventivas en el servicio doméstico**
LSOIN




**Guía para la prevención de enfermedades profesionales**
Lanaren, Migrazioen eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa




**Trabajadoras autónomas: exposición a doble trabajo**
LSOIN




**ERGA legislación Nº10**
LSOIN

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara: ispln.ufii@navarra.es

**ARGITARATZAILEA:**
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
(Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua: fitxategi elektronikoa.
2021eko abendua